



memoria

2021

GIZA ESKUBIDEAK
Donostiako Udala





Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen bidez (Aiete Jauregia) lan egiten du bake kultura hedatzeko, giza eskubideak sustatzeko eta oroimen historikoa berreskuratzeko. Betiere beste udal atal, erakunde, elkarte eta hainbat herritarrekin batera.



BIKTIMEN AITORPENA

In Memoriam	5
- Fernando Múgica Herzog-en omenezko plaka	6
- Enrique Cuesta eta Antonio Gómezen omenezko plaka	7
- María José Bravoren omenezko plaka	8
- Joseba Barandiaranen omenezko plaka	9
- Juan Manuel García Corderoren omenezko plaka	10
- Rafael Garrido Gil-en, Daniela Velasco Domínguez De Vidaurreta-ren eta Daniel Garrido Velasco-ren omenezko plaka	11
- Oroimenaren Eguna	12

DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

Donostiako Giza Eskubideen 18. Zinemaldia	
- Aurkezpena	14
- Solasaldiak, on line	16
- Sariak	17
- Ikastetxeei zuzendutako emanaldiak	18
- Gazte Epaimahaia	18
- Irisgarritasuna eta Kulturarako sarbidea	19
- Online jokoa. BegiraTÚ	19
- Erakusketak	20

ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK

Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen 17. ekitaldia	23
--	----

NAZIOARTEKO EGUNAK

- LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna	26
- Haurren Egun Unibertsala	27
- Bizitzaren aldeko hiriak / Heriotza zigorraren aurkako hiriak	27
- Hiesaren aurkako Munduko Eguna	28
- Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna	29

OROIMEN HISTORIKOA

- Oroimen Historikoaren Ibilbideak	31
- Bisita Antzeztuak "Oroimenaren bidea"	32
- Altzan 1931n eratutako Udalbatzari omenaldia	33
- 1931ko martxan hildako langileei omenaldia	34
- Urdina, nazien kontzentrazio-esparruetara deportatutako biktimen omenezko instalazioa	35
- Donostiako Oroimen Historikoaren Eguna	36

ESKURA

Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-baliabideen Zentroa	
- Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-baliabideen 3. Azoka	38
- Giza Eskubideen aldeko baliabide Pedagogikoen III. Mintegi Internazionala	39
- Ingurumena eta Giza Eskubideen aldeko baliabide pedagogikoen tailer praktikoa	39

Elkarteentzako dirulaguntzak	40
-------------------------------------	----

Giza Eskubideei buruzko ikastaroak	40
---	----



BIKTIMEN
AITORPENA

IN MEMORIAM

Donostiako Udalak, Giza Eskubideen Batzordearen bitartez, konpromiso sendoa mantentzen du terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimen memoria, egia jakiteko eskubidea, justizia, erreparazio morala eta duintasuna babesteko.

Udalak biktimen errekonozimendu eta oroimenezko ekimenak egin ditu. Besteak beste, plakak jartzen jarraitu du: 1960 eta 2020 urte bitartean ETAk, Batallón Vasco Españolak eta GALEk eraildako donostiarren nahiz hirian bertan hil zituzten pertsonen oroimenez; baita poliziaren biolentzia jasan dutenen oroimenez ere.

2021eko abendura arte, honako pertsonak oroitzeko 17 plaka jarri dira erailak izan ziren tokietan: Juan Maria Araluce, José María Elícegui Díez, Antonio Palomo Pérez, Luis Francisco Sáenz Flores, Alfredo García González, Gregorio Ordóñez, Francisco Martín González, Fernando Múgica Herzog, Rafael Garrido Gil, Daniela Velasco Domínguez de Vidaurreta eta Daniel Garrido Velasco - guztiak ETAk erailak -, Enrique Cuesta, Antonio Gómez eta Juan Manuel García Cordero - Komando Autonomo Antikapitalistak taldeak erailak -, Begoña Urroz Ibarrola - DRIL talde armatuak eraila -, María José Bravo del Valle - Batallón Vasco Español taldeak eraila - eta Joseba Barandiaran Urkola - poliziaren ekintzak eragindako biktima.





Otsailak 6

FERNANDO MÚGICA HERZOG-EN OMENEZKO PLAKA



Donostiako Udalak Fernando Múgica Herzog-en omenez plaka jarri zuen bere erailketaren 25. urteurrenean. Múgica ETAK hil zuen atentatu batean 1996. urtean.

Ekitaldia San Martin kalean izan zen, Mugica hil zuten lekuan. Omenaldi xume horretan, Eneko Goia Donostiako alkateak, udal taldeetako ordezkariak eta abokatu eta PSOEko militante historikoaren senideek parte hartu zuten.

Fernando Múgica Herzog, 62 urtekoa, 1996ko otsailaren 6an hil zuten, bere semearekin partekatzen zuen bulegora zihoala, suzko armaz egindako atentatu baten ondorioz hil zen. Semearekin arma batekin apuntatu zioten.





Martxoak 27

ENRIQUE CUESTA ETA ANTONIO GÓMEZEN OMENEZKO PLAKA

Donostiako Udalak Enrique Cuesta eta Antonio Gómezen omenez bi plaka jarri zituen Komando Autonomo Antikapitalistak taldeak 1982an egindako atentatu batean erail zituen lekuan.



Ekitaldia Antso Jakituna hiribideko 22 zenbakian izan zen, eta beste ekitaldietan bezala, omenaldi xumea egin zen. Bertan, Donostiako alkate Eneko Goiak, udal-taldeetako ordezkariak eta bi biktimen senideek parte hartu zuten.

Enrique Cuesta Jiménez, 54 urtekoa, eta Antonio Gómez García, 24 urtekoa, 1982ko martxoaren 26an suzko armaz egindako atentatu baten ondorioz hil ziren. Cuesta, Telefónicako ordezkaria Donostian, bertan zendu zen, eta Gómez, polizia nazionala eta Cuestaren eskolta, bost egun beranduago.





Ekainak 7

MARÍA JOSÉ BRAVOREN OMENEZKO PLAKA

Donostiako Udalak María José Bravoren omenez plaka bat jarri zuen, Batallón Vasco Españolen bikitma 1980an.

Ekitaldia Loiolako Latsari plazan izan zen, eta beste ekitaldietan bezala, omenaldi xumea egin zen. Bertan, Donostiako alkate Eneko Goiak, udal-taldeetako ordezkariak eta biktimaren senideek parte hartu zuten.

María José Bravo, 16 urteko ikasle gaztea, Batallón Vasco Español taldearen eskuetan hil zen, 1980ko ekainaren 7an bortxatu eta buruan kolpe handiak jaso ondoren. Francisco Javier Rueda bere bikotea ere gogor jo zuten eta ondorio larriak izan zituen.





Uztailaren 24an

JOSEBA BARANDIARANEN OMENEZKO PLAKA



Donostiako Udalak Joseba Barandiaranen omenez plaka bat jarri zuen, poliziaren ekintzak eragindako biktima 1978an.

Ekitaldia San Bartolome kaleko 12 zenbakian izan zen, eta beste ekitaldietan bezala, omenaldi xumea egin zen. Bertan, Donostiako alkate Eneko Goiak, udaltaldeetako ordezkariak eta biktimaren senideek parte hartu zuten.

Joseba Barandiaran Urkola, 19 urteko gaztea, 1978ko uztailaren 11n hil zuten tiro batez, Iruñeko Sanferminetan Germán Rodríguezen heriotzagatikiko protesta-manifestazioan.





Urriaren 23an

JUAN MANUEL GARCÍA CORDEROREN OMENEZKO PLAKA



Donostiako Udalak Juan Manuel García Corderoren omenez plaka bat jarri zuen, Komando Autonomo Antikapitalistaken biktimak 1980an.

Ekitaldia Familia Santua kaleko 5 zenbakian izan zen, eta beste ekitaldietan bezala, omenaldi xumea egin zen. Bertan, Donostiako alkate Eneko Goiak, udal-taldeetako ordezkariak eta biktimaren senideak parte hartu zuten.

Juan Manuel García Cordero 53 urteko Telefonikako ordezkari probintziala etxetik irtetean bahitu zuten, eta haren gorpua Ulián aurkitu zuten 1980ko urriaren 23an, zuhaitz bati kateatuta, su-armaz emandako tiro batekin, Komando Autonomo Antikapitalistek leporatutako atentatu batean.



Azaroaren 27an

RAFAEL GARRIDO GIL-EN, DANIELA VELASCO DOMÍNGUEZ DE VIDAURRETA-REN ETA DANIEL GARRIDO VELASCO-REN OMENEZKO PLAKA

Donostiako Udalak Rafael Garrido Gil, Daniela Velasco Domínguez de Vidaurreta eta Daniel Garrido Velasco-ren omenez hiru plaka jarri zituen, ETAk egindako atentuen biktimak 1986an.

Ekitaldia Boulevard Zumardian izan zen. Donostiako alkate Eneko Goiak, udal-taldeetako ordezkariak eta biktimen senideek parte hartu zuten.



Rafael Garrido 59 urteko Gipuzkoako gobernadore militarra, Daniela Velasco bere emaztea, 53 urtekoa, eta Daniel Garrido bere 21 urteko semea 1986ko urriaren 25ean hil zituzten, ETako kideek Legazpi eta Boulevard kaleen arteko bidegurutzean beren ibilgailu ofizialaren sabaian jarritako bonba-laparen ondorioz.

Maria Jose Teixeira, 27 urtekoa, egun batzuk geroago hil zen, leherketak eragindako zauriengatik, eta beste 11 pertsona ere zaurituak izan ziren. Teixeiraren familiak ekimena eskertu duen arren, uko egin dio, oraingoan, haren izenean plaka bat jartzeari.



Azaroaren 10ean

OROIMENAREN EGUNA



Donostiako Udalak omenaldia egin zien terrorismoaren eta indarkeriaren biktimei. Ekitaldia Alderdi Ederreko lorategietan kokatutako biktimen omenezko "Oroimen monolitoan" egin zen. Udal korporazioaren talde politiko guztiek, erakundeetako ordezkariak, biktimek eta, oro har, herritarrek parte hartu zuten.

Minutu batzuetako isilunea egin eta lore eskaintza egin zuten, udal Txistulari bandarekin batera.



DONOSTIAKO GIZA
ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Apirilaren 23tik 30era

DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN 18. ZINEMALDIA



13.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren 18. edizioko zinema-saioetan eta jarduera paraleloetan. Edizioa, COVID-19aren pandemiaren eta edukiera mugen eraginpean egin zen. Zinema egoitz nagusiak Victoria Eugenia Antzokia eta Antzoki Zaharra izan ziren. Jarduera paraleloak berriz, kultur etxeetara, San Telmo Museora, Martuteneko espetxera eta hiriko beste gunetara zabaldu ziren.

19 nazionalitatetako **36 film** proiektatu ziren (22 film luze eta 14 labur), eta **5 erakusketa, tailerrak, online joko bat eta Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen 3. Azoka** programatu ziren.

Zinema emanaldiak hainbat solasaldirekin osatzen dira filmetako protagonisten, zinemagileen eta gizarte arloko adituen eskutik. Horrez gain, **ikastetxeei** 3 film eskaini ziren.





Apirilaren 23tik 30era



Jarduera paraleloen artean, 5 erakusketa eskaini ziren: **Jane Goodall, bakearen aldeko ikertzaile eta ekintzailea** (Aiete Kultur Etxea), **Begirada Hurbila**, Carmen Ballvéren argazkiekin, San Telmo Museoa, **Artea eta Giza Eskubideak 17. edizioa** (Zinemaldiaren informazio bulegoa, Giza Eskubideen udal sailak antolatua) **Emakumeak borrokan** (Udal Liburutegia, Amnesty Internationalek ekoitzia) eta **AridA**, Bea Rearen argazkiak, Fnac-en.

Programazioa osatzeko, ingurumenari buruzko **tailerrak** egin ziren hiriko **Haurtxokoetan**, Jane Goodalli buruzko erakusketaren harira, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak ekoizitako **BegiraTú online jokoaren** eta **Giza Eskubideen aldeko Baliabide Pedagogikoen 3. Azoka**, Eskura, Aieteko Baliabide Pedagogikoen Zentroak, antolatuta. Gainera, **Tabakalerak** eta **Kresala Zineklubak** zinema saioak programatu zituzten.





Apirilaren 23tik 30era

SOLASALDIAK, ON LINE

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiak solasaldi interesgarriak antolatzen ditu zinema emanaldien ostean, betiere gaurkotasun handiko gaiak ardatz hartuta.

Bertan, filmetako zuzendariak eta protagonistek parte hartzen dute, bai eta filmetan giza eskubideei buruz jorratzen diren hainbat alderditan adituak diren pertsonak ere.

Hurrengo esteketan hainbat solasaldi eskuragarri daude:



Bakarrrik dauden adingabeak

Film: ***Vidas menores***

Parte-hartzaileak: Alfredo Torrescalles (zuzendaria), Ismail Ennaimi eta Elena Ayarza.



Adingabeenako sexu abusuak sarean

Film: ***Caught in the net***. Barbora Chalupová eta Vit Klusák-ek zuzenduta.

Parte-hartzaileak: Manu Viota eta Ana Estévez.



Ehun urteko gorako bizitzak

Film: ***Film 100UP***, Heddy Honigmann-ek zuzenduta.

Parte-hartzaileak: Ander Matheu, Eva Salaverria eta Axen Egaña.



Hautzaroa eta gerra Sarajevon

Film: ***Álbum de posguerra***

Parte-hartzaileak: Ángel Leiro eta Airy Maragall Gervasio Sánchez fotokazetariaren parte-hartzearekin.



Itsas Salbamendu Humanitarioa

Film: ***Aita Mari***

Parte-hartzaileak: Javi Julio (zuzendaria) Iñigo Mijangos eta Izaskun Arriaran (SMH)





Apirilaren 23tik 30era

SARIAK



PALMARESA

Welcome to Chechnya (David France; AEB, 2020) filmak **Ikusleen Saria Film Luze Onenari eta Amnesty International-en Saria** lortu zituen.

Confinés dehors (Frantzia, 2020) Julien Goudichaud-en film laburrak **Gazte Epaimahaiaren Film Labur Onenari Saria** irabazi zuen, 3000 euroko ordainsaria duena.

Montxo Armendariz zuzendariak eta **Puy Oria** ekoizleak **Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria** jaso zuten, euren ibilbidea aitortzen duena.



Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren 18. saria


Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria 2007an sortu zen, giza eskubideen alde zinemaren inguruko pertsonen egindako lana eta inplikazioa aitortzeko.

2021ean lehen aldiz, bi pertsonak jaso zuten saria: Montxo Armendariz zuzendariak eta Puy Oria ekoiztetxeak.

Azken hamarkadetako espainiar zinemaren funtsezko bi figura dira, beren historia hurbileko titulu klasiko eta ezinbestekoen autoreak, eta agerian uzten dute mota guztietako gai sozialei heltzeko duten zaletasuna, memoria historikoarekiko duten konpromisoa eta beren garaiko errealitateak kontatzeko duten interesa.

Amaiera ekitaldiaren aurretik, ***Silencio Roto*** beraiek sortutako filma proiektatu zen.

Proiektzioaren ondoren, Montxo Armendarizek eta Puy oriak solasaldi batean parte hartu zuten publikoarekin.



Donostiako 24 ikastetxetako 5.574 ikaslek parte hartu zuten zinema-saioetan. Oraingo honetan, COVID-19ak eragindako mugak zirela eta, online eskaini ziren.

Terra Willy, Asto Erregea eta **Vitoria, martxoak 3**, filmak proiektatu ziren. Horietako bakoitza gida didaktikoekin osatzen da, filmek transmititzen dituzten balioei buruz ikasgelan lantzeko.

DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN 18. ZINEMALDIA, 2021
Donostiako Udasko Giza Eskubideen Salta eta Donostia Kulturara

**PELIKULA (KUZU)
ONDOPEN
KASGELAN
EGITEKO LANA**

**Lehen
Hazkundeak
3. zikloa
9-12
urte**

**PERTSONAIEN
DESKRIBAPENA**

	<u>Antzezlea / Gizona</u>	<u>Nalazioa / Urtara denbora</u>	<u>Txanda / Inkesta beharrezkoa?</u>
MANGU	Astoria Zuzenbidea, mende atzotat Pezkaria		
LEHOI ERREGEA	Lekolia Oinarrizko erregia		
ANTRUSTEUS PRINTEZA	Lekolia Lekoi erregiararen kanta		
MISS PINA	Astoria Lekoi erregiararen Wintberg-ko kanta		
KOMATXO	Kamaleina Lekoi erregiararen Zigierren kanta		
BEGI LUZE	Tiznua Zuzenbidea beharrezkoa iban		
SAPIENS	Martita Pezkaria / Zuzenbidea beharrezkoa		
MANGUBEN AITA	Astoria Lekoi erregiararen kanta		
KUZUKIZEN MARIKA	Gizakia, Zuzenbidea domadoria Zuzenbidea domatza		

**Fabularen gehienez,
azter arazo, azterak
eta adierazpenak
izazten diren lekoi
da eta azter arazo
izazten diren lekoi.
Zuzenbidea.**

**pertsonaia
protagonista
baitatze;
zenbat dira
adierazpenak?**

10

DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN 2019 **Donostia Udalako Giza Eskubideen Salia eta Donostia Kulturaleko**

Lehen
 Hekuntzatik
 1go eta 2. zikloak
6-9
urte

PELKURLA KUSI! **ONDOZTEN** **KLASAREN** **EGITEKO LANA**

Pertsonak: Nolakoak dira?

Iskuzile pertsona arguzten diren pertsonalengatik gaitzetsu diegu eta beraz ezin dugu onartu. Hemen jarriko dituen pausoa gura.

- Zuzen pertsona daugu beldurra?
- Ba al gipo pertsona ageriduen bat?
- Zeinek kontatzen du istorioa?
- Nolako izena duen pertsona bakoitzak?
- Pertsona bakoitzak bigunetako errota bat dauka ala bestela? Zer Zuzenak? Batek beldu beldurra errota bat duela uste beldu, zen errota mota da?
- Pertsona guztiak izaki beldurrik al dira?

WILLY
WILLYBEN GURASAK
BUCK ROBOTA
FLASH
KAKALARDOA
HARRIZKO HUNSTROK

Nolako
 izena dauka?

Izaki
 beldurra da?

Beldur izateko esfortzuek
 oin beldur du?

ZIENTZIA-FIKZIOA

Antzekotasunak eta ezberdintasunak esploratzen

Tena Willy bere erraztasunak, fikzioa eta beldu onerik gabea da.

- Willy bere erraztasun bati ber espazio-ontzi, gaur egungo espazio ontzien antzeki duela uste du?
- Ze antzekotasunak dauka?
 - Espazio ontziak, nola egiten du Willy? Eta gaur egungo astronautak?
 - Espazio ontziak, nola ibiltzen da Willy? Eta gaur egungo astronautak?
- Ezagutzen al dugu? Iru planetak gura, beldu planetaren bat, eta uste orainko denek?
- Ze da robot bat? Etsen robotikari al duzu?
- Buck robot-a bezalakorik existitzen al da gaur egun?

Epaimahai Gaztea 18 eta 30 urte bitarteko 50 gaztek baino gehiagok osatu zuten. Beste batzuetan baino kopuru txikiagoa, edukiera mugatuta zegoelako.



Epaimahaiak bere botoekin erabakitzen du Nazioarteko Film Laburren Lehiaketaren irabazlea. Saria, 3.000 eurokoa da. Kideek giza eskubideen inguruko sentsibilizazioa eta film laburren kalitate zinematografikoa kontuan hartzen dituzte dituzte. Oraingo honetan Julien Goudichauden **Confinés dehors** (Frantzia, 2020) film laburra saritu zuten.





Apirilaren 23tik 30era



IRISGARITASUNA ETA KULTURARAKO SARBIDEA

Zinemaldiak irisgarritasunaren aldeko apustuarekin jarraitzen du: filmen osteko solasaldiak zeinu-hizkuntzaren interprete-zerbitzuarekin osatzen dira; film gehienak pertsona gorrentzako azpigitulu irisgarriekin proiektatzen dira eta **Aita Mari** dokumentala audiodeskribapenarekin programatu zen, itsutasuna edo ikusmen-zailtasunak dituzten pertsonentzat.

Beste urte batez, zinemaldiak Donostiako espetxera (Martutene) zabaldu zuen bere programazioa. Film labur sorta eskaini zuen eta, ondoren, filmen inguruko solasaldia egin zuten presoek zentroko hezitzaileekin.

Horrela, kulturara iristeko zailtasun handiagoak dituzten kolektibo eta pertsonengana iritsi nahi da.

ONLINE JOKOA. BEGIRATÚ

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen proposamena da BegiraTú jokia, Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiarekin lankidetzan eta Donostiako Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren babesarekin.

Eguneroko bizitzan giza eskubideengan eragina duten 10 galdera-erantzunen online joko dibertigarria da.

Ehunka parte hartzaile guztien artean, bidezko merkataritzako 5 saski zozketatu ziren.





ERAKUSKETAK

Apirilak 16 - ekainak 13

JANE GOODALL, Ikertzailea eta bakearen aldeko aktibista

Aiete Kultur Etxea

Jane Goodall primatologo, ingurumen ekintzaile eta Nazio Batuetako Bakearen mezulariaren bizitzari eta ondareari omenaldia, Asier Iturralde donostiarraren ilustrazioen bidez, Jane Goodall Institutuaren aholkularitzarekin.

Jarduera osagarriak egin ziren Udaleko Gazteria Sailarekin lankidetzan.

- Tailerrak Donostiako Udaleko Gazteria Saileko haurtxokoetan,
- Giza Eskubideen Astea eta Jane Goodall. Gure ingurunearen errespetuaz kontzientziatzeko tailerrak.
- *Tximuak eta kimuak*, baratze ekologiko bat sortzeko tailerrak Iñaki Martiarena "Mattin" artistarekin Aiete Haurtxokoan.

Film bat ere proiektatu zen: **JANE** (2017), Brett Morgen, AEB, 90 min.



Apirilak 15-30

EMAKUMEAK BORROKAN. AMNESTY INTERNATIONAL

Liburutegi Nagusia

Amnesty Internationalen **"Emakumeak borrokan"** erakusketak emakumeen giza eskubideak defendatzearen beren askatasuna eta beren bizitza arriskuan jartzen dituzten emakume ausarten historiak erakusten ditu.

Emakume errefuxiatuen kontakizunak dira: aurrera egiteko elkartzen dira, bizitzeko leku seguru baten bila; beren komunitateetan eskubide ekonomiko eta sozialen murrizketei aurre egin behar izan diete; gatazka armatuetan genero-indarkeria salatu eta horren aurka dihardute; ingurumena defendatzen dute gobernuen eta enpresen aurrean; baimena eskatu behar izateari uzteko borrokan ari dira beren herrialdeetako bizitza publikoan parte hartzeko edo beren gorputzei buruz erabakitzeko.





ERAKUSKETAK

Martxoak 12 - maiatzak 16

BEGIRADA HURBILA Carmen Ballvé

San Telmo Museoa

Dominikar Errepublika, Tanzania, Etiopia, Mongolia eta Peru hurbil egon ziren San Telmo Museoko Laborategi aretoan, *Begirada hurbila* erakusketaren bidez.

Erakusketan Carmen Ballvék hainbat hamarkadatan egindako argazki-sorta bat aurkezten da. Ballvé estudioko erretratuan eta argitalpen-mandatueta aritu da neurri handi batean, baina María Millán komisarioaren erakusketan bere lan pertsonalaren aukeraketa bat aurkezten du, zuri-beltzeko 71 irudik osatua, lehenago erakutsi ez direnak.



Apirilak 20 - maiatzak 31

ARIDA Bea Rivas

FNAC


Bea Rivasen erakusketa, ingurumena, ekonomia eta mundu errealarari forma ematen dioten gai sozialak ardatz dituena.

Klima aldaketaren ondorioz, 2040ko horizontean edateko ur arazo handienak izango dituzten 33 herrialdeen zerrendan sartu da Espainia.


Segura ibaiaren arroa da zorigaiztoko iragarpen honen ispiluetako bat. Duela hamarkada batzuek geroztik jasotako plubiometria eskasarekin eta tenperatura altuekin dirau bizirik, endemiko eta Tajotik datorren arro arteko isuraldatze baten menpe; obra hidrauliko faraoniko bat izan zen hura, 70eko hamarkadan egina, ingurumenarekiko eta gizartearekiko inpaktuak ia kontuan hartzen ez zirenean.

Ordutik, eskura ez duen baliabide batean oinarrituta eraiki da eskualdeko ekonomia, zonako oreka hidrografiko naturala hautsita.





ARTEA ETA
GIZA ESKUBIDEAK





ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK, HAUR ETA GAZTEEN 17. EKITALDIA



Ikastetxe, haurtxoko, harrera-zentro eta arte-akademietako 1.947 haur eta gaztek parte hartu zuten Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Arloak antolatutako Artearen eta Giza Eskubideen Haur eta Gazteen 17. edizioan.

Edizio honetan, COVID-19ren pandemiak baldintzatuta osasunaz gozatzeko eskubideari eta gaixotasunak sendatzeko tratamenduei buruz hausnartzeko gonbita egin zen, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 24. artikuluan jasotzen den bezala.

Lan guztiak Victoria Eugenia Antzokian ikusgai egon ziren Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren baitan.





NAZIOARTEKO
EGUNAK



Ekainak 28



LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA



LGTBI harrotasunaren Nazioarteko Eguna zela eta, Udalak adierazpen instituzional bat onartu zuen, besteak beste, eraso LGTBIfobikoak erabat gaitzesteko eta hezkuntza eta sentsibilizazioa sustatzeko beharra berresteko.

Adierazpen Instituzionala Udaleko terrazan irakurri zuten Eneko Goia alkateak eta udal talde guztietako bozeramaileek: EAJ, EH Bildu, PSE-EE, PP eta Elkarrekin Donostia.

Gainera, LGTBI kolektiboaren ikurra den ostadarra duen alfonbra erraldoi bat jarri zuten udaletxeko kanpoko eskaileretan. LGTBI banderaren kolorearekin argiztatu zen Kursala eta Dbuseko autobusek kartelak eraman zituzten.



Azaroak 20

HAURREN EGUN UNIBERTSALA

Giza Eskubideak, Gazteria eta Kultura Aniztasuna sailek, Donostia Kulturak eta Mestiza elkarteak bat egin zuten Haurren Eskubideen Konbentzioa onartu zeneko 32. urteurrena ospatzeko hainbat jarduerarekin.

Haurtxokoetan eta Gaztelekuetan, Educo GKEaren “Entzutea eskubidea da” da baliabide pedagogikoa landu zen, haurrek entzunak izateko duten eskubideari buruzkoa.

Liburutegiek ipuin kontalariak antolatu zituzten. Udaletxeko fatxadan olana bat jarri zen egun unibertsal hau gogoratzeko.



Azaroak 30

BIZITZAREN ALDEKO HIRIAK. HERIOTZA ZIGORRAREN AURKAKO HIRIAK

Donostiako hiriak bat egin zuen *Bizitzaren aldeko hiriak / Heriotza zigorraren aurkako hiriak* nazioarteko ekimenarekin. Sant'Egidio Komunitateak bultzatzen du, urtero, azaroaren 30ean munduko hainbat hiritan egiten den jarduera.

Heriotza zigorraren ezeztapena aldarrikatzeko kolore gorritz argiztatu zuten Donostiako udaletxearen aurrealdea. 2020. urtean 483 pertsona exekutatu zituzten 18 herrialdetan, Amnesty Internationalek aditzera emandako datuen arabera.



2016an, Donostiako Udalak erakunde adierazpena onartu zuen. Honela, konpromisoa hartu zuen bere eskumeneko arlo guztietan informazio eta sentsibilizazio espazio egokiak sortzeko heriotza zigorra gaitzesteko.



Abenduak 1

HIESAREN AURKAKO MUNDUKO EGUNA

HIESaren aurkako borrokaren 40. urteurrena zela eta, hainbat ekitaldi egin ziren:

- Lore eskaintza Kalkutako Teresa plazan, HIESaren biktimen memorialean. ACASGI, Harribeltza, Gehitu eta EHGAMen laguntzarekin
- Kaltetutako pertsonei elkartasuna adierazteko manifestuaren irakurketa.
- Musika Eskolako ikasleen dantza garaikideko ikuskizuna Tabakaleran
- Elkarreek azken 40 urteetan egindako ibilbideari buruzko argazkien bideo muntaketaren proiektzioa.
- Udaletxea gorriz argitu zen
- Kursala lazo gorriarekin argitu zen
- DBUSeko autobusek elkartasunaren ikurra zuten kartelak eraman zituzten





Abenduak 10



GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna zela eta, Travellin 'Brothers, The Fakeband, Capital Sol, Caricatuas Brothers eta Aurora Beltran taldeek Mendebaleko Sahararen aldeko ikuskizuna eskaini zuten Antzoki Zaharrean.

Kontzertua Club44ren ekimenari difusioa emateko sortu zen, diskoaren II. liburukiaren edizioan lanean ari baita: «Harresiaren zehar abesten – Mendebaldeko Sahararako kantuak».

Lehiatilaren diru-bilketa Sahararen aldeko karabanarako izan zen.

Donostiako Udaleko Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Sailek antolatu zuten kontzertua, Club 44 eta Donostia Kulturarekin batera.





OROIMEN
HISTORIKOA



Martxoak - maiatza

OROIMEN HISTORIKOAREN IBILBIDEAK

DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 2. mailako 770 ikaslek Memoria Historikoaren Ibilbideetan parte hartu zuten 2020-21 ikasturtean.

Urtero egiten den jarduera honek 1936ko estatu-kolpean eta ondorengo diktadura frankistan hirian esanguratsuak izan ziren tokiak zeharkatzeko aukera ematen die ikastetxeei.

Bisitek, Koma Zerbitzu Kulturalak taldeak dinamizatuak, harrera ona dute ikasleen artean, gerrari eta frankismoari erreferentzia eginez, ikasgeletan ematen diren edukien osagarri baitira.

1

ABIATZEA

Easo plazako kioskoa

2

BABESLEKUA

Garai bateko suhiltzaileen eraikina

3

ATXIKITZE LEKUA

San Jose ikastetxea

4

BONBARDAKETA LEKUA

San Martzial kalea 48-50

5

KOMUNIKABIDEAK ETA ZENTSURA

Txurruka kalearen eta Askatasunaren hiribidearen bidegurutzea

6

BORROKA LEKUA

Maria Cristina hotela

7

FUSILAMENDU LEKUA

Nautikoaren pasabidea

8

DUAL ESKULTURA





Iraila - urria

BISITA ANTZEZTUAK “Oroimenaren Bidea”



Urtero, Donostiako Udalak bisita antzeztuak antolatzen ditu, altxamendu militar frankistan gure hirian gertatutakoa ezagutzera emateko asmoz.

Bisitak, iraileko larunbatetan egiten dira. Gerra zibilaren hondamendiak zuzenean edo zeharka sufritu zituzten pertsona guztiei egindako omenaldi bat dira bisitak, eta gure historian kapitulu triste bat izandako lekuak eta pertsonaiak oroimenean gordetzen lagunduko digu.

Bi antzezlek donostiarrek garai hartan bizi izan zituzten uneak kontatzen eta antzesten dituzte, ordu eta erdiz hiriko zazpi puntutan, Xabier López Askasibarrek idatzitako gidoiari jarraituz.





Irailak 11

ALTZAN 1931N ERATUTAKO UDALBATZARI OMENALDIA



Donostiako Udalak II. Errepublikan (1931-1937) Altzan eratutako Udalbatza omendu zuen.

Ekitaldia, Ekialdeko Barrutiko Batzarraren ekimenez, Altzako Alkateordetzan izan zen, eta bertan, udalbatza hartako 12 kideen omenezko plaka bat jarri zuten.

Omenaldian, Celestino Atorrasagasti, Pedro Ayesta, Gaspar Cardona, José Casares, Juan Iriarte, José Iruretagoyena, José Juanes, Pablo Landa, Ricardo Tejada eta Felipe Zurutuzaren senideek, Osoko Bilkurako kideek, oroigarri bat jaso zuten.

Eneko Goia alkateak adierazi zuenez,

“ekitaldi honen bidez, bai Udalak bai Altzako herriak Altzako azken udalbatza hautetsiek, askatasunaren bidetik, bertako herritarren alde egindako lana aitortu nahi dute”.





Abenduak 22

1931KO MARTXAN HILDAKO LANGILEEI OMENALDIA

Donostiako eta Pasaiaiko Udalek 1931n langileen martxa batean Guardia Zibilak hildako eta zauritutako langileak gogoratu zituzten, gertakarien 90. urteurrenean.

Historiaren kapitulu hori ezagutaraztea emateko, monolito bat jarri zuten, Ategorrietako errelojiaren ondoan, indarkeriazko gertakarien agertokian bertan.

Ekitaldian, Eneko Goia Donostiako alkateak, Izaskun Gomez Pasaiaiko alkateak, bi udalerrietako udalbatzetako kideek eta hildako langileen senideek lore-eskaintza egin zuten.

José Carnes (32 urte), Manuel Pérez (34 urte), José Novo (25 urte), Antonio Barro (31 urte), Julián Zurro (19 urte), Jesús Camprosola (23 urte) eta Manuel López (26 urte) langile pasaitarrak 1931ko maiatzaren 27an lan-baldintzak salatzeke egindako martxa batean hil egin zituzten.

Manifestazioa Ategorrietako erlojuaren parera iritsi zenean, Guardia Zibila manifestarien aurka tiroka hasi zen. Horren ondorioz, 7 langileak hil eta zauritu ugari utzi zituen.





Iraila

URDINA, NAZIEN KONTZENTRAZIO- ESPARRUETARA DEPORTATUTAKO BIKTIMEN OMENEZKO INSTALAZIOA



Aieteko Parkeak instalazio berria du biktimen omenez, kasu honetan Donostian jaio edo bizi izan ziren nazien kontzentrazio-esparruetara deportatutako pertsonen omenez.

"Urdina" Jose Iñigo Piñera Elorriagaren instalazioa da, 2019ko Proiektu Lehiaketaren irabazlea. Proposamen artistikoa espazio kubiko irekia da. Kanpoko irudia zakarra eta gogorra (hormigoia), planteatzen da, bunker baten antzekoa, baina pertzepzio hori denborarekin aldatuz joango da, hormen kanpoko aldeetan landatutako landare igokariz estaliko baita.

Gerturatzean, kuboak barrura sartzeko gonbita egiten digu, eta barrualdetik, leiho horizontal batek hainbestetan ikusiko zuten ikuspegia markoztatzen du, eta gero faltan botako zuten, nazien kontzentrazio esparruetara deportatutako donostiarrek.

Beste aldean, leiho bertikal batek Anne Franken zuhaitzaren kimua enfokatzen du bere ikuspegia irudikatuz.





Irailaren 13an




DONOSTIAKO OROIMEN HISTORIKOAREN EGUNA

Donostiako alkate Eneko Goiak eta Udalbatzak frankismoaren biktimak oroitzeko eta omentzeko lore eskaintza egin zuten Dual eskulturan, Donostiako Oroimen Historikoaren Eguna zela eta. Honela, omenaldia egin nahi izan zieten 1936ko estatu kolpe frankistaren ondoren eta diktadura garaian askatasun demokratikoak babestu zituztenei.



Donostiako alkateak azpimarratu zuenez “ekitaldi honekin lortu nahi duguna da ez ahaztea hiriak urte luzez jasan zuen sufrimendua, askatasunak amaitu eta iluntasun garai batean sartu bain”. “Gure herritar asko ihes egiteaz gain, beste batzuek bizia ere galdu zuten, eta ekitaldi xume honen bidez ondorioak jasan zituzten pertsona horiek guztiak oroitu nahi ditugu” gorarazi zuen Goiak.



ESKURA

Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-baliabideen Zentroa



Apirilak 24-27

GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO PEDAGOGIA- BALIABIDEEN 3. AZOKA. ESKURA

Eskurak, Aieteko Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen Zentroak, antolatutako azokak ingurumena eta giza eskubideak izan zituen ardatz. Ekitaldia Antzoki Zaharrean eta Victoria Eugenia egin zen, eta hainbat formatutan egindako azken nobedadeen eta baliabide berritzaileen berri eman zuen. Besteak beste, ura izateko eskubidearen, krisi klimatikoaren edo basoen egoeraren inguruan.

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren baitan, ***La vida secreta de los árboles*** filma proiektatu zen, eta ondoren solosaldia. Programazioa osatzeko, bi mahai-inguru egin ziren klima-aldaketak kolektibo ahulenetan duen eraginari eta ingurumen-hezkuntzaren garrantziari buruz, eta bi aurkezpen, umorezko jardunekin amaitu zirenak.





Urriak 6-7

GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO BALIABIDE PEDAGOGIKOEN III. MINTEGI INTERNAZIONALA



Kursaal Zentroak Eskurak antolatutako Baliabide Pedagogikoen Nazioarteko III. Mintegia hartu zuen.

Hainbat erreferentek ekofeminismoari, eko-bakezaletasunari, hezkuntza ekosozialari, ingurumen- eta gizarteratze-politiken koprodukzioari, lurraldearen defendatzaileen errealitateari, ozeanoen eta krioferen egoerari, kontsumo arduratsuari, ekolidergoari eta abarri lotutako baliabideak aurkeztu zituzten. Estrategia pedagogikoen ikuspegitik hartuta.

Hizlarien artean honako hauek izan ziren: David Boyd, Nazio Batuetako Giza Eskubideen eta Ingurumenaren errelatore berezia, Yayo Herrero, Europa mailan eremu ekofeministan eragin handia duen ikertzailea, eta UNESCOren Klima Hezkuntzarako Bulegoa, hezkuntza-sistamarako hainbat baliabide garatzen dituen, besteak beste.

Abenduak 11

INGURUMENA ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO BALIABIDE PEDAGOGIKOEN TAILER PRAKTIKOA

Eskuraren egoitza den Aiete Jauregian tailer praktiko bat egin zen, Giza Eskubideen aldeko Baliabide Pedagogikoen III. Mintegi Internazionalan aurkeztutako materialak lantzeko.

Gizarte-hezkuntzarekin, ekozeanismoarekin, krisi klimatikoarekin edo justizia globalarekin lotutako material pedagogikoak aztertu ziren. Bakeolak dinamizatu zuen tailerra.





ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

Donostiako Udalak 40.240 euro bideratu zituen giza eskubideen sustapena helburu duten 29 proiektu diruz laguntzera.

Laguntzen helburua da bakea, bizikidetzak, giza eskubideak, aniztasunarekiko errespetua eta memoria historikoa berreskuratzeko lanetan diharduten hiriko eragile sozialek eta elkarteek zuzendutako ekimenak eta proiektuak babestea.

GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO XXV. IKASTAROAK

2021eko azarotik 2022eko maiatzera

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Sailaren babesarekin EHUK antolatutako Giza Eskubideen ikastaroek 25 urte bete dituzte.

Aurtengo edizioan, besteak beste, gaurkotasuneko gaiei buruzko hausnarketa egingo dute: zinema eta haurren eskubideak, bakarrik dauden haurrak eta terrorismoaren aurkako gerrak giza eskubideetan duen kostua, hainbat gairen artean.

Besteak beste, Jose Antonio Martin Pallin Auzitegi Goreneko fiskal emeritua, Najat el Hachmi, Arabiar Filologian lizentziatua eta idazlea eta Iñaki Gabilondo kazetaria izango dira bertan.

Ikastaroak osatzeko, hiru beka emango dira ikasleak Estrasburgoko René Cassin Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuaren Irakaskuntzako Urteko Bilkurara joan daitezen, eta txosten guztiak jasotzen dituen urteko argitalpen bat.





Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea

Giza Eskubideen Saila

Aieteko Jauregia

Aiete Pasealekua 65, 20009 Donostia

943 48 19 75

giza_eskubideak@donostia.eus

www.donostia.eus/gizaeskubideak



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos